



KUTXA FUNDAZIOAREN

ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

I. TITULUA.- Xedapen orokorrak	3
1. artikulua.- Izena.....	3
2. artikulua.- Izaera eta xedeak.....	3
3. artikulua Arau-erregimena.....	3
4. artikulua. Helbidea eta lurralde-eremua.....	3
5. artikulua.- Xedea.....	3
6. artikulua.- Fundazioaren izaera.....	4
7. artikulua.- Jarduteko erak.....	4
8. artikulua.- Jardueren publizitatea.....	5
9. artikulua.- Enpresa-jarduerak.....	5
10. artikulua.- Onuradunek eta laguntzen zertarakoa.....	5
11. artikulua.- Jarduteko eta funtzionatzeko printzipioak.....	5
II. TITULUA.- Fundazioaren organoak	6
12. artikulua.- Fundazioaren gobernua.....	6
13. artikulua.- Ahalmenak.....	6
14. artikulua.- Karguen izaera.....	6
15. artikulua.- Osaera.....	6
16. artikulua.- Presidentzia.....	7
17. artikulua.- Presidenteordea.....	7
18. artikulua.- Idazkaritza.....	7
19. artikulua. Patronatuaren funtzioak.....	7
20. artikulua. - Patronatuaren betebeharrak.....	8
21. artikulua.- Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordetzeak.....	8
22. artikulua.- Zuzendaritza.....	9
23. artikulua.- Batzorde delegatuak, delegazioak eta ohorezko patronoak.....	10
24. artikulua.- Bilkurak.....	11
25. artikulua. Eraketa eta erabakiak hartzea.....	12
26. artikulua. Hirugarren pertsonak patronatuaren bileretara joateko aukera.....	13
27. artikulua.- Autokontratatzeko debekua.....	13
III. TITULUA.- Ondarea eta erregimen ekonomikoa	13
28. artikulua.- Fundazioaren ondarea.....	13
29. artikulua.- Ondare-doikuntzak.....	14
30. artikulua.- Ondasunen inskripzioa eta inbentarioa.....	14
31. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa, eta ekonomia- eta kontabilitate-arloko betebeharrak...	15
32. artikulua.- Auditoria.....	15
33. artikulua.- Fundazioen baliabideen aplikazioa.....	15
34. artikulua.- Xedapen- edo karga-egintzak.....	16
35. artikulua.- Azkentzea eta likidazioa...	16
36. artikulua.- Estatutuak aldatzea.....	16
IV. TITULUA – Gobernu ona: etika eta gardentasuna	16
37. artikulua. Patronoen betebeharrak.....	16
38. artikulua. Jarduteko printzipioak eta arauak.....	17
39. artikulua. Interes-gatazka.....	18
40. artikulua. Patronatua osatzen duten pertsonen erantzukizuna.....	19

I. TITULUA.- Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Izena.

Donostiako (Gipuzkoa) "**kutxa Fundazioa**" Fundazioa, Donostiako notario José Maria Segura Zurbano jaunaren aurrean 1991ko martxoaren 8an sinatutako eskritura publikoaren indarrez eraturakoa haren protokoloaren 672. zenbakiarekin, irabazi-asmorik gabe eraturako erakundea da, bere ondarea modu iraunkorrean interes orokorreko helburuak egitearen eraginpean duena (aurrerantzean, "**Fundazioa**" ere bai aukeran).

Fundazioaren iraupenak izaera mugagabea du.

2. artikulua.- Izaera eta xedeak.

Fundazioak nortasun juridiko propioa du eta erabateko ahalmena maila juridikoan nola jardutekoan, legeek eta estatutu hauetan bilduta dauden xedapenek ezarritako mugekin.

Beraz, Fundazioak honako hau egin dezake, adibide gisa eta inolako mugarik gabe: mota guztietako ondasunak libreki eskuratu, eduki, kontserbatu, atxiki, administratu, besterendu, trukatu, kargatu eta, oro har, erabili, eraldatu eta bihurtu, mota guztietako agintzak eta kontratuak sinatu, kreditu-eragiketak itundu, ondasunak eta eskubideak bete, ukatu eta onartu, baita bidezko diren prozedurak sustatu, aurkaratu, jarraitu eta atzera egin ere, eta mota guztietako eskubide, egintza eta salbuespenak libreki egikaritu Justizia Epaitegi eta Auzitegi Arruntetan eta Berezetan, Administrazio Publikoaren Organismo eta Egoitzetan, eta estatuko, probintziako eta udalerriko beste edozein organismoren aurrean, eta estatuko nahiz nazioarteko zuzenbide publikoko nahiz zuzenbide pribatuko gainerako korporazio, organismo eta erakundeen aurrean.

3. artikulua Arau-erregimena.

Fundazioa eraentzen dutenak honako hauek dira: estatutu hauek, EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren erregelamendua onartzen duten uztailaren 23ko 115/2019 dekretua, eta une bakoitzean aplikatu behar zaizkion lege-arau guztiak, baita erakunde sortzailearen borondatea ere.

4. artikulua. Helbidea eta lurralde-eremua.

Donostiako Mikeletegi pasealekua, 79, Arbide Dorreak (Gipuzkoa) helbidean finkatzen da Fundazioaren helbidea. Patronatuak helbide hori lekualdatu ahal izango du, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugen barruan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten ditu bere jarduerak nagusiki, eta bere jarduna Euskal Autonomia Erkidego osora eta, hala badagokio, beste lurralde batzuetara ere zabal dezake, patronatuak hori erabakitzen badu.

5. artikulua.- Xedea.

kutxa Fundazioaren helburu nagusia zera da: gizarte-, ongintza-, laguntza-, irakaskuntza- eta/edo kultura-arloko jarduerak sustatzea, garatzea eta haiei eustea, eta helburu nagusi hori hobeto gauzatzeko patronatuak beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituen gainerako jarduera guztiak, Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioarekin lankidetzan.

Jarduera horiek, edonola ere, interes orokorreko xedeak lortzera bideratuko dira, hala nola: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, xede zibikoak, hezkuntza, kultura, zientzia, kirola, osasun-zerbitzuak, lana, garapenerako laguntza, boluntariotzaren eta elkartasunaren sustapena, ingurumenaren babesaren eta iraunkortasunaren kulturaren sustapena, arrazoi fisikoak, sozialak edo kulturalak direla-eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen sustapena eta arreta, tolerantzia eta gizarte-balioen sustapena, informazioaren gizartearen garapena eta ikerketa zientifikoa eta teknologia-garapena.

Ikerketa zientifikoaren eta garapen teknologikoaren esparruan bereziki, ***kutxa Fundazioak*** bere gain hartzen du Miramongo Zientzia Museoaren (Eureka-Zientzia Museoa) kudeaketa eta administrazioa. Kudeaketa hori zuzenean edo zeharka eraman ahalko da Fundazioak gehiengoarekin partaidetutako merkataritza-sozietate baten bidez.

Ingurumenaren babesaren eta iraunkortasunaren kulturaren sustapenaren esparruan, eta Gipuzkoako garapen iraunkorrean laguntzeko, jendeari kontzientziatik ekintzarako urratsa egitea erraztuz, ***kutxa Fundazioak*** erreferentziazko parke tematiko bat kudeatuko du prestakuntzarako eta ingurumen-hezkuntzarako Arteaga Zabalegi Finkan, orain Ekogunea deitzen zaiona, eta ildo horretan bertan proiektuak sustatuko ditu lurraldeko udalekin egindako aliantzen bidez. Kudeaketa hori zuzenean edo zeharka eraman ahalko da Fundazioak gehiengoarekin partaidetutako merkataritza-sozietate baten bidez.

6. artikulua.- Fundazioaren izaera.

Fundazioak finantzaketa-, zerbitzu- eta sustapen-izaera hirukoitza izango du, eta kasu bakoitzean aurreko artikuluetan ezarritako xedeak eskatzen duen jardueraren arabera jardun ahal izango du.

7. artikulua.- Jarduteko erak.

kutxa Fundazioak, bere xedeak garatzeko, modu desberdinetan jardun ahal izango du, garatu nahi den proiektu zehatza kontuan izanik. Horrela:

- a) Gizarte Jarduera propioa. ***kutxa Fundazioak*** Gizarte Jardueraren proiektu gehienek kudeaketa bere gain hartuko du zuzenean. Gizarte-ekintzaren proiektu propio horiek osorik kutxa Fundazioak kudeatu ahal izango ditu, edo bestela, proiektuak hala eskatzen duenean, horretarako eraturako erakundeek bitartez, zeinek unitate autonomiadun bezala jardungo duten arrazoi operatiboak eta eraginkortasunekoak direla medio. Erakunde horiek, edozein kasutan, ***kutxa Fundazioak*** finantzatu eta kontrolatuko ditu.
- b) Gizarte Jarduera Lankidetzan. Osagarri gisa, ***kutxa Fundazioak*** hirugarrenek gidatzen dituzten eta Gizarte Ekintzan barne har daitezkeen beste zenbait proiektutan lagundu ahal izango du, proiektu horiek finantzatu eta haiekin sinatzen den Lankidetzaren Hitzarmenean adierazitako helburuak betetzen direla zainduz.

8. artikulua.- Jardueren publizitatea.

Fundazioaren balizko onuradunek Fundazioaren beraren jardunak ezagutu ditzaten, Fundazioak bere helburu eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, balizko onuradunek eta gainerako interesdunek helburu eta jarduera horien berri izan dezaten.

9. artikulua.- Enpresa-jarduerak.

1.) Fundazioak zuzenean edo erakunde batzuen bidez garatu ahal izango ditu beste edozein motatako ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak, fundazio-xedeekin zerikusia badute edo jarduera horien osagarria den xedea duten jarduerak egitearen bidez, lehiaren defentsa arautzen duten arauen pean betiere.

2.) Gainera, beste edozein jarduera ekonomikotan esku hartu ahalko du beste erakunde batzuetan duen partaidetzaren bidez sozietate-zorrei pertsonalki erantzuten ez zaien kasuetan.

3.) Artikulu honetan bildutako jardueren berri eman beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari, indarreko legeriak aurreikusitakoari jarraikiz.

10. artikulua- Onuradunek eta laguntzen zertarakoa.

Fundazioaren jardueraren onuradun izan daiteke haurren, gazteen, familiaren, pertsona helduen eta enpresa txiki eta ertainen mundua osatzen duen edozein pertsona fisiko edo erakunde, gizarte-premiaren, diskriminaziorik ezaren, inpartzialtasunaren eta ekonomia-baliabide mailaren irizpideak kontuan izanik. Ondorioz, bere laguntzak interes orokorrari mesede egiteko moduan orientatuko ditu.

Fundazio-xedeak Fundazioaren zuzeneko kudeaketarekin edo beste erakunde edo pertsona batzuen zerbitzuak kontratatuz lor daitezke.

Estatutuetan eta legean ezarritakoaren arabera eta patronatuaren irizpidea kontuan izanik laguntzea merezi duten pertsona edo erakundeei emango dizkie bere etekinak edo laguntzak Fundazioak, eta horrela, inork ezin izango du alegatu, ez indibidualki ezta kolektiboki ere, Fundazioaren aurrean etekin edo laguntza horiek gozatzeko eskubidea, eta ezin izango du inposatu horiek pertsona jakin batzuei ematea.

Patronatuak objektibotasunari, inpartzialtasunari eta diskriminaziorik ezari lotutako irizpideekin jardungo du pertsona onuradunak finkatzean. Dena den, onuradunen kopurua mugatu behar bada, onuradun horien hautaketa eta zehaztapena atzera bota ezin den moduan egingo da, balioetsi beharreko eskakizunak eta gaiak zehaztuta, izangai guztien merezimenduak, premiak, ahalmen ekonomikoa eta aprobetxamendu-aukera kontuan izanda, edo beste ezaugarri subjektibo batzuei jarraikiz.

11. artikulua- Jarduteko eta funtzionatzeko printzipioak.

Honako printzipio hauei jarraikiz gauzatuko du bere jarduna Fundazioak:

- a) Publizitatea eta gardentasuna, bere helburu eta jardueri buruzko informazio nahikoa ematea, biztanleriak oro har eta dagozkion balizko onuradunek helburu eta jarduera horien berri izan dezaten.

- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak finkatzean, baita bere jarduera eta prestazioak finkatzean ere.
- c) Jardun-gidalerroak sustatzea, jokabide-kodeak eta funtzionamenduko jardunbide egokiak sortuz.
- d) Patronatua osatzen duten pertsonen zerbitzu-espirtua piztea, eta, horrekin batera, Fundazioaren interesak interes propio edo partikularren gaintik lehenestea.
- e) Lankidetzaren leial eta iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak fundazio-xedeetara bideratzeko betebeharra benetan babestearen defentsa eta babesa, estatutu hauetan eta indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera.
- g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA.- Fundazioaren organoak

12. artikulua.- Fundazioaren gobernuak.

Fundazioa gobernatu, administratu eta ordezkatzeko zeregina eskusiboki uzten da patronatuaren esku, eta fundazio-xedeak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen eta eskumen guztiak baliatzea dagokio, eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea, ondasun eta eskubide horien erabilgarritasuna atxikiz, betiere estatutu hauek eta ordenamendu juridikoak xedatzen dutenari jarraikiz.

Patronatuko kideak estatutu hauetan xedatutakoaren arabera izendatuko dira eta kide horiek estatutuetan ezarritako moduan egikaritzeko dituzte dagozkien eskumenak. Patronatuari dagokio bere establezimenduen edo delegazioen egoitzak ezartzea, halakorik balego.

13. artikulua.- Ahalmenak.

Fundazioaren organoak bere xedeak eraginkortasunez betetzeko zuzenbidean beharrezkoak diren botere eta ahalmen guztien titular eskusiboak izango dira, eta beren eskumena estatutu hauen interpretazioari eta Fundazioaren funtzionamenduan sor daitezkeen gorabehera guztien ebazpenari lotutako gai guztietara hedatuko da, inolako mugarik gabe.

14. artikulua.- Karguen izaera.

Patronatuaren karguak doakoak izango dira, beren eginkizunak betetzean gertatzen diren gastuen ordainketa aparte utzi gabe, betiere behar bezala justifikatuta badaude.

Patronoek Fundazioaren interesen onerako eta Fundazioaren xedeak betetzeko beteko dituzte beren funtzioak.

15. artikulua.- Osaera.

Fundazioaren Patronatua aldi berean Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuko kide direnek osatuko dute, honako berezitasun honekin: Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren patrono diren pertsona juridikoen kasuan, **kutxa Fundazioaren** Patronatuko kide izango dira Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuan ordeztzen dituzten pertsona fisikoak soilik.

16. artikulua.- Presidentzia.

Fundazioaren Patronatuaren presidente izango da Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuaren presidente dena. Presidenteak kalitate-botoa izango du berdinketak hausteko patronatuak eztabaidatzen dituen erabakiei buruzko bozketetan.

Patronatuaren presidenteak izango du gobernu-organo horretako goreneko ordezkaritza, eta aipatutako karguaren kideari atxikitako ahalmenez gain, patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuetatik eratorritako erabakietako egintza eta kontratu guztietan Fundazioa ordezkatu beharko du, baita sortzen diren auzietan, espedienteetan, administrazioko, gobernuko, judizio bidezko, eta judizioz kanpoko gaietan ere, eta horretarako prokuradorei edo abokatuari ahalordeak eman ahal izango dizkie.

17. artikulua.- Presidenteordea.

Fundazioaren Patronatuaren presidenteorde izango da Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuaren presidenteorde dena.

Presidentearen ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak presidenteordeak hartuko ditu bere gain, eta, halakorik ezean, patronatuko kiderik zaharrenak.

18. artikulua.- Idazkaritza.

Patronatuak Fundazioaren idazkari kargurako izendatuko du, Patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren idazkari dena, eta bilkuren akta jasoko du presidentearen ontzat emanarekin, akta-liburuan idatziko du, eta liburu hori zainduko du.

Halaber, patronatuak idazkariorde izendatuko du, patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren idazkariorde kargua duena.

Idazkaria ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak idazkariordeak hartuko ditu bere gain, eta, halakorik ezean, patronatuak, erabaki bidez, Fundazioko langile bat gaitu ahal izango du aldi baterako, idazkari-funtzioak bete ditzan.

19. artikulua. Patronatuaren funtzioak.

Patronatuaren funtzioak Fundazioaren gobernuari dagokion guztira hedatzen dira, eta bereziki honako gai hauetara:

- a) Fundazioaren orientazioa adieraztea, dauzkan helburuak hobeto betetzeko.
- b) Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, baliabide horien jatorria edozein dela ere.
- c) Aurreko ekitaldiko inbentarioa, egoera-balantzea, emaitza-kontua, memoria, eta aipatutako denboraldiko planaren likidazioa onartzea.
- d) Hurrengo ekitaldiaren jardun-plana eta gastuen aurrekontua onartzea, baita azalpen-memoria ere.
- e) Barne-erregimeneko arau egokiak onartzea.
- f) Batzorde Delegatuak eratzea, batzorde horietako kideak izendatzea eta kide horien ahalmenak zehaztea, eta ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- g) Zuzendaritza-karguen, exekutiboen eta aholkularien izendapenak, baita beharrezkoak diren gainerako langile teknikoen, administratiboen, laboralen eta urgazleen kontratazioa ere.
- h) Fundazioak eskatzen dituen helburuak hobekien betetzeko edozein motatako egintzak eta kontratuak formalizatu eta onartzea, kontratu horiek zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administrazioakoak, edo beste edozein motatakoak badira ere.
- i) Erakunde eskudunei dagozkien proposamenak aurkeztea goragoko erabakia behar duten gaietarako.
- j) Elkarlan teknikoko eta langile gaituen prestakuntzako programetan enpresa, erakunde, organismo edo partikularren parte-hartzea sustatzea, funtsen ekarpenaren eta lankidetzaren bidez.
- k) Jaraunspenak, legatuak, edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, betiere Fundaziorako egokitzat jotzen badituzte, babeslaritzari jakinarazita.
- l) Fundazioaren estatutuak aldatzea, fundatzaileen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

20. artikulua. - Patronatuaren betebeharrak.

Honako betebeharrak dituzte fundazioaren patronatua osatzen duten pertsonak:

- a) Fundazioaren xedeak zorrotz bete eta betearaztea, legean eta Fundazioaren estatutuaren ezarritakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, eta ondasun eta eskubide horien produktibitateari osorik eustea, kudeaketa on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua ordezkaririk leial bati dagokion ardurarekin betetzea.

21. artikulua.- Ahalmenak eskuordetzea eta ahalordetzeak.

1- Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahalko ditu patronatua osatzen duen pertsonen arteko batengan. Honako gai hauei buruzko erabaki-hartzea ezin izango da ezein kasutan ere eskuordetu:

- a) Urteko kontuak onartzea.
- b) Jardun-plana onartzea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioaren fusioa, zatiketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, salbu ete egintza horiek zuzenean helburuei lotuta badaude.
- f) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetzako edo partizipazioak saltzeko egintzak, betiere egintza horien zenbatekoak Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen badu.

- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duen ondasun edo eskubideen gaineko edozein xedapen-egintza.
- h) Hornidura gehitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo edo pasibo guztien edo zati baten eraldaketa, zatiketa edo lagapen globala.
- j) Sozietateen edo beste pertsona juridiko batzuen azkentze-egintzak.
- k) Patronatua osatzen duten pertsonen autokontratazioa, salbu eta jardun hori errepikakorra bada eta babeslaritzak arrazoi berengatik baimendu badu.

2- Era berean, ahalmen orokor eta bereziak eman edo errebokatu ahalko ditu.

22. artikulua.- Zuzendaritza.

Patronatuak zuzendari bat izendatuko du, eta patronatuak hartutako erabakien jarraipena egitea eta erabaki horiek betetzea aginduko zaio. Agindu hori ondo bideratzeko, egiteko hori betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak izan beharko ditu zuzendariak.

Izendatzen dutenean bestelakorik zehazten ez bada, honako oinarritzko eginkizun hauek beteko ditu zuzendariak, Patronatuaren esanbidezko erabaki bidez:

- a) Fundazioaren giza baliabideak kudeatzea (patronatuak onartutako plantillaren barruan), eta indarrean dauden lan-arauen betetzea zaintzea.
- b) Fundazioaren berezko xedea osatzen duten jarduera guztien funtzionamendua patronatuaren jarraibide eta planen arabera koordinatu eta kontrolatzea, kudeaketan eraginkortasun-maila handia lortzeko, patronatuak ezarritako ildo eta planen arabera.
- c) Fundazioaren sinadura administratiboa eramatea korrespondentzian, funtsak eta balioak mobilizatzean, kontu korronteak ireki eta likidatzean eta edozein motatako gordailuak eratu eta ixtean, edozein kreditu-erakundetan (baita Espainiako Bankuan ere).
- d) Patronatuak onartu beharreko jardun-planak, txostenak eta memoriak prestatzea.
- e) Inbentarioa prestatzea eta Fundazioaren urteko kontuak egitea kasuan-kasuan patronatuak onar ditzan.
- f) Patronatuak eta/edo batzordeek aztertzekeo jarri behar diren erabakiak aztertu eta prestatzea.
- g) Patronatuaren eta/edo batzordeen erabakiak betearaztea, kasuan-kasuan.
- h) Fundazioaren zerbitzuen antolamendu onerako eta funtzionamendu eraginkorrerako bidezko zat hartzen dituen aginduak eta instrukzioak ematea, barne-zerbitzuak

antolatzea eta Fundazioaren dependentzia, bulego eta zerbitzu guztiak, oro har, ikuskatu eta zaintzea, patronatuaren ordezkari iraunkor gisa.

- i) Fundazioaren kontabilitatea antolatzea.
- j) Patronatuari informazioa ematea eta bidezkoztat hartzen dituen proposamen guztiak helaraztea.
- k) Patronatuari emaitzak aplikatzeko proposamena aurkeztea, onar dezan.
- l) Patronatuak eskuordetzen edo ahalordetzen dion beste edozein ahalmen erabiltzea.

Zuzendariaren izendapenak iraupen mugagabea izango du, patronatuak hura edozein unetan, ebazpen arrazoituaren bidez, kargutik kentzea erabakitzeke aukera aparte utzi gabe.

Bere eginkizunak hobeto betetzeko, zuzendaria bertaratu egingo da, ahotsarekin eta botorik gabe, patronatuak egiten dituen bilkura guztietara, non eta patronatuak berak zehazki beste gauzaren bat erabakitzen ez badu.

23. artikulua.- Batzorde delegatuak, delegazioak eta ohorezko patronoak.

Bere kide batean edo hainbatetan delegatu ahalko ditu patronatuak bere ahalmen guztiak, edo batzuk, honako hauek izan ezik: urteko kontuak eta aurrekontuak onartzea, kudeaketa arruntetik kanpo dauden ekintzak edo babeslaritzaren baimena behar dutenak, baita aplikatzekoa den araudiak ezartzen duen beste edozein.

Goragoko paragrafoan adierazitako mugak kontuan izanik, batzorde delegatu eta betearazleak eratu ahalko ditu patronatuak, kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenekin, hala nola ahalordetu orokorrak edo bereziak izendatzea, eginkizun mankomunatu edo solidarioak dituztela.

Delegazio eta ahalordetze orokorrak, baita dagokien baliogabetzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

Era berean, patronatuak ohorezko patronoak izendatu ahal izango ditu. Ohorezko patronoari dagokion ohorezko tituluarekin izendatu dira Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioan ohorezko patrono ere direnak.

Ohorezko patronoak patronatuaren bileretara/bilkuretara bertaratu ahal izango dira eta bertan hitz egiteko eta aztertzen diren gaiei buruzko iritzia emateko eskubidea izango dute, baina ez dute inolako kasutan boto-eskubiderik izango. Edonola ere, ohorezko patronoak patronatuko gainerako kideen jardun-arau berberetara lotuta egongo dira.

Ohorezko patronoaren kargua doakoa izango da eta biziarteko izaera izango du,

salbu eta patronatuak kargugabetzea erabakitzen badu edo ohorezko patronoak zuzenbidean onartutako edozein bitarteko baliatuz dimisioa aurkezten badu.”

24. artikulua.- Bilkurak.

Patronatuaren bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Patronatuak bere funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa den maiztasunarekin egingo ditu bilkura arruntak, eta gutxienez hiru hilean behin, presidenteak deialdia egin ondoren.

Presidenteak edo haren ordeztuak beharrezkotzat hartzen duenean edota kideen herenek idazki bidez eta aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adieraziz eskatzen dutenean bildu ahal izango da patronatua. Deialdia egiteko betebeharra presidentearen ustez premia egiaztatua dagoenean eta bilera patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dagoenean baino ez da izango.

Deialdia egiteko eskatzen den kasuan, patronatuko presidenteak lau (4) egun balioduneko gehieneko epean egingo du bilkurarako deialdia, eta bilkura deialdia egin eta hogeita lau (24) ordutik hirurogeita hamabira (72) bitarteko tartean egingo da. Gai-zerrendan, eskaera osatzen duten eta presidentearen ustez premiazkoak diren eta patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dauden gaiak sartuko dira.

Patronatua, halaber, izaera unibertsalez bildu ahal izango da patrono guztiak bertaratuta edo ordezkaturik egonik aho batez ezohiko bilkura egitea erabakitzen dutenean (aho batez ezartzen duten gai-zerrendarekin).

Patronatuko presidenteari dagokio patronatuaren bilkuretarako deialdia egitea.

Deialdia posta elektronikoko bidez edo jaso dela adierazteko aukera emango duen beste edozein baliabideren bidez egingo da. Bertan, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, eta dagokion dokumentazioa erantsiko zaio.

Ohiko bilkuretarako deialdia lau (4) egun baliodun aurretik egin behar da gutxienez. Ezohiko bilkuren kasuan, berriz, deialdia baliozkoa izango da gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago egiten bada, izaera unibertsaleko bilerei dagokienez ezarritakoa aparte utzi gabe.

Deialdiaren eta patronoari eman beharreko edozein komunikazioren ondorioetarako, patronoek kargua onartzen dutenean Fundazioari ematen dioten helbide elektronikoa erabiliko da, eta, horri dagokionez aldaketarik izanez gero, Fundazioari jakinarazi behar da.

Bilerak **kutxa Fundazioaren** estatutuen arabera helbidean egingo dira, baina presidenteak erabakitzen duen beste lekuren batean ere egin ahal izango dira.

Era berean, presidenteak arrazoi justifikatuegatik baimendu ahal izango du batzordearen bilerak egitea ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoekin konektaturik dauden hainbat lekutatik aldi berean bertaratuz, baldin eta ziurtatzen bada batzartzen diren errekonozimendua, konexioaren jarraitutasuna, denbora errealeko elkarreragina eta interkomunikazioa, eta, beraz, egintzaren batasuna ere bai, patronoen esku-hartzea, deliberazioa eta boto-ematea ahalbidetuta. Kasu honetan, bilera Fundazioaren helbidean egiten dela ulertzen da. Paragrafo honetan aipatzen den presidentearen baimena bileraren deialdian jasota geratu ahal da edo, justifikatutako kasuetan, patronoek emandako helbide elektronikora igorritako ondorengo komunikazio bidez.

Idazkariak patronatuko bileren akta egingo du. Presidenteak eta idazkariak sinatutako dituzte aktak, eta bilkura bakoitzera bertaratutako zerrenda, izandako bozketen emaitzak eta hartzen diren erabakien testu literalak jaso behar dira aktetan.

Patronatuak berak onartuko ditu aktak bilkuraren amaieran edo hurrengo bilkuran, salbu eta bileren berehalakotasunak ahalbidetzen ez badu, kasu horretan akta ondorengo beste bilkura batean onartuko baita. Erabakiak egikaritzea eta, kasuan-kasuan, publiko egitea errazteko, partzialki onartu ahalko dira aktak, eta onartutako zati bakoitzak erabaki bat edo bat baino gehiago bilduko ditu.

Erabakiak Akta Liburuan transkribatuko dira.

Presidenteak, komenigarritzat hartzen duenean edo patronatuko kideen herenek eskatzen dutenean, berak aukeratutako notario bat egotea eskatu ahal izango du, patronatuaren bileraren akta egin dezan. Notario-akta patronatuaren aktatzat hartuko da, eta, beraz, patronatuaren Akta Liburuan transkribatu beharko da.

25. artikulua. Eraketa eta erabakiak hartzea.

Bilkurari hasiera ematean kideen erdiak gehi bat bertaratuta edo ordezkaturata daudenean hartuko da patronatua balio osoz eratzat. Patronatuko kideek beste patrono batzuei baino ezin izango diete laga beren ordezkaritza, eta ordezkaritza idazki bidez eta bereziki patronatuaren bilera bakoitzerako eman beharko da.

Deitutako bilerara patronatuko kideen erdiak baino gehiago joaten ez badira, bilera bigarren deialdian eratu ahal izango da, betiere bertaratu diren edo ordezkaturata dauden patronoak gutxienez patronatuko kide guztien herenak badira eta lehen deialdiaren eta bigarrenaren artean gutxienez hirurogei (60) minutuko tartea badago.

Patronatuak gai-zerrendan jasotako gaiak buruz soilik eztabaidatu eta erabaki ahal izango du, estatutu hauen 24. artikuluan izaera unibertsaleko bilerei dagokienez aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

Patronatuak bertaratutako edo ordezkaturako patronoen gehiengo soilaren aldeko botoekin hartuko ditu bere erabakiak, estatutu hauen edo legeria aplikagarriaren arabera gehiengo berezi bat behar duten erabakien kasuan izan ezik. Gehiengo soila erabakiaren aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean lortuko da, abstentzioak eta boto zuriak zenbatu gabe. Berdinketarik izanez gero, presidenteak edo, hala badagokio, bilera zuzentzen duen pertsonak kalitateko botoa izango du.

Kideen bi herenen botoak beharko dira Fundazioaren fusio-erabakiak hartzeko, edozein aldaketa estruktural egiteko eta desegiteko eta estatutu hauek aldatzeko. Aurrekoa gorabehera, agindu-indarrezko arau batek idatz-zati honetan aipatzen diren erabakiak hartzea dakarren edozein betebeharrak ezartzen badu, erabakiak arau horretan adierazitako gehiengoekin hartuko dira.

Bozketak izendunak izango dira normalean, bertaratutako edo ordezkaturako patrono gehienek sekretuak izatea erabakitzen dutenean izan ezik. Patronatuaren eztabaidak eta erabakiak sekretuak izango dira; nolana ere, administrazio publiko eskudunei edo beste organo eta agintari batzuei informazioa emateko betebeharrak bete beharko dira.

Balio osoz hartutako erabakiek patronatuko kide guztiak behartuko dituzte, disidenteak eta bertaratu ez direnak barne.

Salbuespen gisa, bilerarik egin gabe hartu ahalko ditu erabakiak patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa hartu dela jasota geratzen bada eta botoaren benetakotasuna bermatzen bada. Erabakia hartu dela ulertzen da pertsona juridikoaren helbidean eta modu baliagarrian emandako botoetako azkena jaso den egunean. .

26. artikulua. Hirugarren pertsonak patronatuaren bileretara joateko aukera.

Gaien izaera dela-eta komeni denean, patronatuko presidentek errekerimendua egin ondoren eta gai-zerrendako gaietarako buruzko informazioa emateko xede bakarrarekin, horretarako bereziki kalifikatuta dauden hirugarren pertsonak joan ahal izango dira patronatuaren bilkuretara, hitzarekin baina botorik gabe.

Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren zuzendari nagusia **kutxa Fundazioaren** Patronatuaren bileretara joan ahal izango da beharrezkotzat edo egokitzat jotzen duenean, eta bertan hitza izango du baino botorik ez.

27. artikulua.- Autokontratatzeko debekua.

Patronatuko kideek ezin izango dute Fundazioarekin kontraturik egin, beren izenean edo hirugarren baten izenean dela ere, salbu eta babeslaritzak horretarako baimena ematen badu.

III. TITULUA- Ondarea eta erregimen ekonomikoa

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea hasierako hornidura osatzen duten mota guztietako ondasun, eskubide eta betebeharrak osatu ahal izango dute, baita eratu ondoren eskuratzen direnak ere, eta berdin izango dio hornidura eraginpean hartzea edo ez.

Bereziki, honako hauek osatuko dute Fundazioaren ondarea:

- a) Fundazioaren eskrituran bildutako hasierako hornidura.
- b) Fundación Bancaria Kutxa- Kutxa Banku Fundazioak, kasuan kasu, Fundazioaren alde egiten duen fundazio-hornidura.
- c) Edozein administrazio publiko edo erakunde pribaturekin ezartzen diren Hitzarmenen ondoriozko diru-sarrerak.
- d) Fundazioak egiten dituen jardueren ondoriozko diru-sarrerak, baita eman ditzakeen zerbitzuen ordainsariak ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- e) Zuzenbidean onartutako baliabideen bitartez, aurrerantzean eskuratzen duen beste edozein ondasun edo eskubide; eta bereziki, beste pertsona, organismo eta erakundeei ematen dizkieten legatu, dohaintza, diru-ekarpen eta diru-laguntzen arabera. Dohaintza, legatu eta jaraunspenen onarpena babeslaritzari jakinarazi beharko zaio.
- f) Bere ondarearen ondoriozko emaitza edo errentak, produktu edo mozkinak.
- g) Beste edozein baliabide legezko aplikazio-esparruaren barnean.

Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta berehalakoan fundazio-xedeak betetzeari atxikitzen joko dira, fundazio-xedeak egiteko inolako pertsona edo erakunderik tartekatu gabe.

29. artikulua.- Ondare-doikuntzak.

Egoera ekonomikoek hala gomendatzen badute, edozein unetan, eta behar adina bider, Fundazioak bere kapitalean beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak, eraldatzeak edo bihurketak egin ahal izango ditu, nahiz eta Fundazioaren kapitalaren balio nominalari eutsi, balio efektiboa edo erosteko ahalmena murriztea saihestearren, eta horregatik, hurrengo belaunaldiek aprobetxatzeko, patronoek ahalmen horiek baliatzea gomendatzen da.

30. artikulua- Ondasunen inskripzioa eta inbentarioa.

Fundazioa osatzen duten ondasunen zaintza ziurtatzeko, honako arau hauek beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek fundazioaren izenean egon beharko dute, eta fundazioko inbentarioan azaldu beharko dute, eta hala badagokio, dagozkien erregistroetan jaso beharko dira:
- b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean jasoko dira Jabetza Erregistroan. Erregistra daitezkeen gainerako ondasunak dagozkion erregistroetan jasoko dira.
- c) Baloreak eta dirua, jabetza-tituluak, gordailaketaren frogagiriak, eta jabetza-, edukitze-, erabilera- eta baliatze-eskubideen egiaztagiriak, edo Fundazioak eduki dezakeen beste edozein eskubideren egiaztagiriak patronatuak zehazten duen erakundearen gordailatuko dira Fundazioaren izenean.
- d) Patronatuak zehazten duen moduan zainduko dira gainerako ondasunak.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira, eta liburu hori patronatuko idazkariak edukiko du, eta idazkariak ikuskatuta, ondasunak edo eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren zirkunstantzia guztiak idazki bidez jasoko dira.

31. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa, eta ekonomia- eta kontabilitate-arloko betebeharrak.

Ekitaldi soziala urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da, ekitaldiaren itxiera-datan.

Urteko kontuak onartu eta hurrengo 30 egun naturaleko epean, Fundazioaren patronatuak EAEko Fundazioen Erregistrora igorri beharko ditu urteko kontuak behar bezala sinatuta bertan gorde ditzaten, eta kontu horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitateari buruzko araudian aurreikusitako eskakizunak bete beharko dituzte betiere.

Balantzeak, emaitza-kontuak, memoriak eta aurreko jardun-planaren likidazioak osatu behar dituzte gutxienez Fundazioaren urteko kontuak. Era berean, auditoria-txostena aurkeztuko du patronatuak, EAEko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako kasuetan.

Kontu horietan Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoerak azaldu beharko dira, urtean egindako jardueren memoriarekin batera, baita ondarearen ekonomia-kudeaketa ere, fundazio-xedeen eta legezko aginduen betearazpena jakinarazteko eta justifikatzeko.

Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da eta urte naturalarekin uztartuko da. (Urte naturalarekin bat ez badator, estatutuetan adierazi beharko da).

Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko jardun-plan bat egingo du Fundazioak, eta aurrekontu horretan diru-sarrerak eta gastuak bilduko dira modu orekatuan. Aipatutako plana babeslaritzari aurkeztuko zaio onartu den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

32. artikulua.- Auditoria.

Fundazioaren garrantzi ekonomikoa kontuan izanda, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, aditu independenteen kanpo-fiskalizazioaren azterketapean jarri beharko ditu bere kontuak urtero Fundazioak, kontu-auditoria bat eginez indarrean dagoen legerian aurreikusita dagoen moduan.

33. artikulua.- Fundazioen baliabideen aplikazioa.

Kontzeptu guztiengatik lortutako emaitza-kontuko diru-sarreraren gutxienez % 70 bideratu beharko du Fundazioak bere fundazio-xedeetara, diru-sarrerak lortzeko eragindako gastuak kenduta, fundazio-xedeak betetzeari dagozkionak izan ezik. Dagozkion emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori itxi eta hurrengo hiru urteen artekoa izango da betebeharrak hori betetzeko epea.

Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak izango dira administrazio-gastuak, eta, gastu horiekin batera, beren kargua egikaritzean patronatuko kideei eragindako gastuak ere bai, betiere gastu horien gaineko itzulketa-eskubidea badago.

34. artikulua.- Xedapen- edo karga-egintzak.

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari jakinarazi beharko dizkio EAEko Fundazioei buruzko Legean adierazitako Fundazioaren ondarearen zati diren kostubidezko edo doako xedapen-egintzak, baita karga-egintzak ere.

Patronatuak babeslaritzari aurkeztu beharko dio xedapen- edo karga-erabakia behar bezala hartu dela finkatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, akordioaren motibazioa eta hura burutzeko premia adierazita, eta, horrekin batera, eragiketa ez dela Fundazioarentzat kaltegarria eta ez duela eragiketaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen.

Xedapen- edo karga-egintzetako ondasun edo eskubideen merkatu-balioak fundazioaren aktiboaren % 60a gainditzen badu, profesional batek egindako azterlan ekonomiko bat aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, adierazpenean azaldutakoa egiaztatuz eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatuz, baita eragiketan irizpide ekonomiko-finantzarioei eta merkatu-irizpideei erantzuten diela ere.

EAEko Fundazioen Erregistroan idatziko dira adierazitako xedapen- edo karga-egintzak, inskripzioa aparte utzi gabe, bidezko denean, dagokion erregistroan. Babeslaritzan urtero aurkeztu beharreko memorian jakinarazi beharko dira gainerako xedapen- edo karga-egintzak.

35. artikulua- Azkentzea eta likidazioa.

Indarreko legerian bildutako kasuetan azkenduko da Fundazioa edo edozein arrazoirengatik ezin badira fundazio-xedeak bete. Likidazioaren kasuan, Fundazioaren ondarea, osorik, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan edota hura ordeztzen duen beste edozein arautan aurreikusitako ondorioetarako mezenasgoaren onuraduntzat jotzen diren erakundeetako batera edo interes orokorreko xedeak dituzten eta fundazio ez diren erakunde publikoetara bideratuko da, erakunde hori Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioak aukeratuz.

36. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

Patronatuak estatutu hauek aldatu ahal izango ditu bilera batean, bere kideen guztizkoaren bi heren bertaratuta edo ordezkatuta daudenean eta bertaratutakoen hi herenen gehiengoak hala erabakitzen badu.

IV. TITULUA – Gobernu ona: etika eta gardentasuna

37. artikulua. Patronoen betebeharrak.

Patronatua kide anitzekoa izango da, eta kideek ordezkari leial baten ardurarekin beteko dute kargua. Gainera, beren karguaren berezko funtzioak bete beharko dituzte, honako hauek nagusiki:

- a) Karguaren funtzioetan aktiboki parte-hartzea. Horretarako, aztertzeke aurkezten zaien gai bakoitzari buruz beharrezkoa den informazioa izango dute. Presidenteari eta idazkariari dagokie informatzeko eskubidearen eta betebeharraren betetzea zaintzea.
- b) Patronatuaren eta, hala badagokio, batzordeen bileretara joatea, baita Fundazioaren interesean deitutako beste batzuetara ere. Patronatuaren bileretara joaten ez denak patronatuari edo bertako presidenteari jakinarazi beharko dio.
- c) Patronatuak edo patronatuko presidenteak fundazio-jarduerak egiteko eta patronatuak hartutako erabakiak betearazteko agintzen dien edozein zeregin egitea.
- d) Karguaren berezko funtzioak betetzean ezagutzen duten eta publikoa ez den informazio ororen sekretua gordetzea, baita patronatuaren bileretan aztertuko den edo aztertu den beste edozein gairen sekretua ere, eta bileretan edozein gairi buruzko eduki, eztabaida eta hartutako erabaki guztiena, eta informazio hori norberaren edo hirugarrenen onurarako ez erabiltzea, hirugarrenei ez helaraztea eta ez zabaltzea; nolahi ere, legez eskatzen denean informazioa emateko betebeharra izango da.
- e) Ordezkari leial baten ardurarekin betetzea kargua, dedikazio egokiarekin eta bere funtzioak betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz, betiere Fundazioaren interesak kontuan izanik hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, bere ahalmenak eman zaizkion xedeetarako bakarrik erabili beharko ditu, eta bere interesak (norberaren edo besteren konturakoak) Fundazioaren xedeekin gatazkan sar daitezkeen egoeratan ez erortzen saiatuko da.

38. artikulua. Jarduteko printzipioak eta arauak.

Fundazioak honako betebeharrak izango ditu:

- a) Ondarea eta bere errentak Fundazioaren beraren xedetara bideratzea, estatutu hauei eta legeei jarraikiz.
- b) Bere helburu eta jardueri buruzko informazio nahikoa ematea, balizko onuradunek eta gainerako interesdunek horien berri izan dezaten.
- c) Onuradunak finkatzean inpartzialtasunari eta diskriminaziorik ezari lotutako irizpideekin jokatzeko.

Nolanahi ere, patronoen jardura honako arau hauetara egokituko da:

- a) Beren funtzioak Fundazioaren onura eskusiborako betetzea, estatutu hauetan zehaztuta dauden Fundazioaren xedeei jarraikiz.
- b) Nolanahi ere, Fundazioaren interesarekiko arduraz, leialtasunez eta fideltasunez, eta, beraz, eraginpean har ditzaketen beste interes batzuekiko independentzia osoz eta instrukzioz eta agindurik jaso gabe jardutea. Ildo horretan, patronoek patronatuari baino ez dizkiote kontuak emango, eta adierazitako ardura-, leialtasun- eta fideltasun-betebeharrak ez betetzeagatik Fundazioari kalteak eragin dizkioten jardunen erantzuleak izango dira Fundazioaren aurrean.
- c) Beren funtzioak zintzasunez, gardentasunez eta fede onez betetzea, inpartzialtasun- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz, interes orokorrerako jardunez eta adierazitako printzipioen aurkako jokabiderik agertu gabe. Ez dira inplikaturik beren funtzioekin bateraezinak diren egoera, jardura edo interesetan, eta ez dute esku hartuko beren objektibotasunean eragina izan dezakeen ezein gai, akordio edo erabakitan edota interes-gatazka batean sartuta daudenean.
- d) Gaiak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientziaren printzipioei jarraikiz eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin jardutea.
- e) Fundazioari, presidentearen bitartez, beren lanbide-egoeran izandako edozein aldaketaren edo beren funtzioak normal betetzea eragotz dezakeen beste edozein aldaketaren berri ematea.
- f) Fundazioaren negozio-aukera bat norberaren zuzeneko edo zeharkako onurarako ez baliatzea, inbertsioa edo eragiketa aurretik Fundazioari eskaintzen zaionean, Fundazioak patronoen eraginik gabe ustiatzeari uko egiten dionean eta patronoak eragiketa baliatzeko aukera patronatuak baimentzen duenean izan ezik.
- g) Organo eskudunei ezagutzen duten edozein jardun irregular jakinaraztea.
- h) Beren kargua betetzean ohiko edo kortesiazko usadioetatik eta usadio sozialetatik kanpokoa oparirik ez ematea eta ez onartzea, ezta mesede edo zerbitzurik ere, beren funtzioak askatasun eta independentziaz betetzea baldintzatuzko moduko baldintza abantailatsuetan. Erakunde-garrantzi handiagoa duten oparien kasuan, Fundazioaren ondareari gaineratuko zaizkio.

- i) Fundazioan duten tokia abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko ez baliatzea.
- j) Une oro, patronatuaren bileretan aztertuko den edo aztertu den beste edozein gairi dagokionez konfidentzialtasunari eta diskrezioari eustea, baita bileretan edozein gairi buruzko eduki, eztabaida eta hartutako erabaki guztiei dagokienez ere.

39. artikulua. Interes-gatazka.

Patronatuko kideek idazkariari jakinarazi beharko dizkiote Fundazioarekin zerikusia duten eta norbera edo lotutako pertsonak eraginpean hartzen dituzten interes-gatazka guztiak, eta ez dute jardungo gatazka-egoera horiei lotutako akordio edo erabakietan.

Horri begira, honako kasu honetan ulertuko da dagoela interes-gatazka: patronatuko kide bat edo haren ordezkaria kontratatu nahi izan eta kontratazio horrek haren funtzioen egikaritzapen inpartzial eta objektiboa eraginpean har dezakeenean edo egikaritzapen horretan interes laborala, pertsonala, profesionala, familiarra edo negozio-arlokoa gerta daitekeenean, edo patronoen interes pertsonalak eta Fundazioaren interesek zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean. Egoerak patronoa bera edo hari lotutako pertsona bat eraginpean hartzen duenean sortuko da patronoaren interes pertsonala, eta honako hauek izango dira patronoei lotutako pertsonak:

- a) Patronatuko kidearen ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona, eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.
- b) Patronoek edo haiei lotutako pertsonak beren kabuz edo haien ordezkari jarritako pertsona baten bidez partaidetza duten sozietate edo erakundeak, ehunekoa edozein izanik ere.
- c) Patronoek edo haiei lotutako edozein pertsonak bere kabuz edo haren ordezkari jarritako pertsona baten bidez administrazio edo zuzendaritzako kargu bat betetzen dueneko sozietate edo erakundeak, edota edozein arrazoiengatik kargu-sariak ematen dizkietenak.

Artikulu honetan adierazitako pertsonak Fundazioarekin eragiketarako egiteko, beharrezkoa izango da eragiketa horien premia behar bezala egiaztatzea eta fundazioaren interesak patronoen edo parekatutako pertsonen interesen gainetik jartzea.

Interes-gatazkaren kasuan, patronatuari dagokio eragiketarako onartzea, eta Auditoria eta Kontrol Batzordeak (baldin badago) aldeko txostena egin ondoren eta patronatuko kideen gehiengo osoarekin onartuko ditu, Fundazioarekin duten interes-gatazka dela-eta bozkatu ezin dutenak zenbatu gabe. Bileraren aktan, patronoek zer bozkatu duten jasoarazi behar da. Onarpenari buruzko erabaki hori babeslaritzari jakinaraziko zaio berehala.

40. artikulua. Patronatua osatzen duten pertsonen erantzukizuna.

Patronatua osatzen duten pertsonak solidarioki erantzungo dute Fundazioaren aurrean, legearen edo estatutuen aurkako edota kargua betetzean agertu behar duten ardurarik gabe egindako egintzen ondorioz eragiten dituzten kalte-galerei dagokienez.

Salbuetsita geratuko dira erabakiaren aurkako botoa eman dutenak, eta erabakia hartzen eta betearazten esku hartu ez dutela eta erabakiaren berri izan ez zutela edota, erabakiaren berri

izanik ere, kaltea saihesteko ahalegin guztiak egin zituztela edo, behintzat, erabakiaren aurka agertu zirela frogatzen dutenak.

KUTXA FUNDAZIOAREN Patronatuak 2021eko otsailaren 25ean onartutako estatutuak.